

Bi berri labur

BIZIKLETA-TAXIAK BERRIRO DABILTZA PARISEN

Astelehenaz geroztik, kolore horiko bizikleta-taxiak ikusi ahal dira Parisko kaleetan. Bi anaiak sortutako enpresa batek Frantziako hiriburuko ibilbide turistikoak horrela egiteko aukera eskainiko die bisitariei. Sortutako lehen ibilbidea 5,2 kilometro egiten du la Concordeko enparantzatik abiatuz. Lenhart anaien asmoa da hogei bat bizikleta-taxi jartzea eta zenbait ordutako lana eskaintzea unibertsitateko ehun bat ikasleri bereziki. Bizikleta-taxirik izan zen antzina Parisko kaleetan, baina haiek garai triste batean zebiltzan, hots, Frantzia alemanez okupatuta zegoenean eta erregai eskasagatik garraio mota hori asmatu behar izan zutenean.

KASTORE GAIZKILEA

Washingtonen, EEBBetan gaizkile bat atxilotzen dutenean bezala eman zuten berria: “Azkenean lortu dugu Jeffersonen monumentu inguruko arbola historikoak botatzen zituen taldeko buruzagia atxilotzea”. Horraino ezer arrarorik ez du berriak, ezta? Kontua da, baina, gaizkileak ez zirela arruntak, kastore familia batek osatutakoa baizik. Animalia horiek, azkenaldian, lan eta lan aritu dira eta parkeko gerezi japoniar ugari bota dituzte. Joan den astean, familiako ama eta semea atxilotu zituzten, baina buruzagia -aita – harrapatzeko saio guztiek huts egin zuten. Gaixoa atzo erori zen tranpan.

Orain esan ezazu hurrengo esaldietatik zein da lehenengo berriarena eta zein bigarren berriarena.

1. Familia oso bat da berri honen protagonista.
KASTOREAK
2. Hiriaren mesederako ari dira lanean berri honen protagonistak.
TAXISTAK
3. Berri honekin langabezi tasa jaitsiko da.
4. Berri honetan kontaktzen denak ez dio ingurugiroari laguntzen.
5. Berri honen protagonistek bi hanka dute.
6. Talde lanean ari dira berri honen protagonistak.
7. Berri honen protagonistek ez dute haragirik jaten.
8. Berri honen protagonistek ez dute zuzenean lan egingo.
9. Hiriaren kalterako ari dira lanean berri honen protagonistak.
10. Berri honen protagonistek ez dute negoziarik egin nahi.
11. Berri honetan kontaktzen dutena ez da berria.
12. Berri honen protagonistek "sake ederra" daukate.
13. Kultura handitzeko bidea ematen du berri honek.
14. Berri honek lagundu egingo dio ingurugiroari.
15. Oso langileak dira berri honetan agertzen direnak.
16. Euria ari duenean ezin dute lanik egin berri honen protagonistek.

ERANTZUNAK:

3. TAXISTAK, 4. KASTOREAK, 5. TAXISTAK, 6. KASTOREAK, 7. KASTOREAK, 8. TAXISTAK, 9. KASTOREAK, 10. KASTOREAK, 11. KASTOREAK, 12. KASTOREAK, 13. TAXISTAK, 14. TAXISTAK, 15. KASTOREAK, 16. TAXISTAK